OSKARBI

LOINATZ ABESBATZA

OSKARBI TALDEA

Herri kantutegia eta sorkuntza berria oinarri hartuta, 1966an hasi zen Oskarbi talde gipuzkoarra gerra ondoko euskal kantu berriaren bidean. Musika harmonikoa, doinu berritzaileak eta euskal kantu ez ezagunak uztartu dituzte 56 urte luze hauetan.
Ez Dok Amairuren partaide izan zen Oskarbi (1968-1972). Jorge Oteizarekin eta Bitoriano Gandiagarekin harreman estua izan zuten hasierako urteetan.
Diskografia zabala du Oskarbi Taldeak, denetara hamabi disko plazaratu dituzte, sei binilo eta sei cd. Lehen diskoa 1969an grabatu zuten, azkena *Kantua Zuei* 2021ean.
Kantua Zuei azken diskoan Oskarbik sortutako 12 pieza eta herri kanta bat daude. Gainera lehen aldiz abesbatza batekin lau kanta grabatu dituzte, Loinatz Abesbatzarekin hain zuzen.
Jende aldetik aldaketa ugari izan da Oskarbi Taldean. Oiartzunen hasierako hiru taldekide izango dira, beste bi 77tik daude taldean eta beste hiru azken bi urte hauetan Oskarbi Taldera gehitu dira.

LOINATZ ABESBATZA

Loinaz abesbatza 1939an sortu zuen Pedro José Iguainek.
Hamarkada batez isilik egon ondoren, 1986an Loinatz Abesbatza bezala berpiztu zen Xabier Sarasolaren eskutik.
Errepertorio zabala jorratzen du. Euskal errepertorio herrikoian oinarritutako abesbatzarako egokitzapen zahar eta berrietatik abiatu, eta ospe eta tradizio handiko konpositore unibertsalen abesbatzarako edo abesbatza eta orkestrarako obretaraino kantatzen ditu; besteak beste, T. Garbizu, X. Sarasola, J. S. Bach, A. Vivaldi edo J. F. Haendel.
2012ko urtarrilean, hogeita bost urtez Xabier Sarasolaren zuzendaritzapean aritu ondoren, Junkal Guerrero andoaindarrak hartu zuen koruaren zuzendaritza eta handik bost urtera gaur egungo zuzendari artistikoa den Jon Aizpuru Mallea irundarrak.

OIARTZUNEN

UDAKO 26. KONTZERTUA

Harribeltza elkartearen aldeko kontzertu berezia

Done Eztebe Parrokian, 2022 uztailak 31, igandea, 19:30

1. ZATIA Loinatz Abesbatza

Zuzendaria: Jon Aizpuru

Hiru txito ..... A. Donostia
Goizian argi hastian ..... A. Lesbordes
Euskal jokoak ..... J. Busto
Kristalez inguratuta ..... E. Ugalde
Amorioa ..... J. Elberdin

2. ZATIA Oskarbi Taldea

Oskarbi kantu kantore Hitz.: J. L. Treku Mus.: S Larrendaburu/Oskarbi
Trinidadeak ..... Hitz.: Herrikoiak Mus.: Herrikoia/Oskarbi
Iturri Zaharretik..... Hitz.: J. A. Artze Mus.: G. Iñarra/Oskarbi
Trebiñun dantzan ..... Mus.: C. Ruiz / Oskarbi
Kantua zuei..... Hitz.: J. L. Treku Mus.: G. Iñarra/Oskarbi

3. ZATIA Oskarbi Taldea eta Loinatz Abesbatza

Abesbatzarako konposaketak: I. Gonzalez

Androkanto ..... Hitz.: L. Romero Mus.: L. Romero/Oskarbi
Mariñela ..... Hitz.:J. B. Kamusarri Mus.: I. Maritxalar/Oskarbi
Soin Berriko Koplak .. Hitz.: P. Otxoteko Mus.: G. Iñarra/Oskarbi
Esperantzari ..... Hitz.: B. Gandiaga Mus.: L. Romero/Oskarbi
Mendira naiz ..... Hitz.: J. L. Treku Mus.: I. Maritxalar/ Oskarbi

Antolatzailea:

Harribeltza

HIESaren aurkako elkartea

Eskerrak:

San Esteban Parrokia
OIARTZUN

OIARTZUNGO UDALA

cpc
consultoresdeprensaycomunicación

SOINUENEA
Herri Musikaren Txokoa

Pacheco Izeta
Floristería- Loredenda
Mamut Merkatalgunea - Oiartzun Tlf.: 943491868
www.pachecoizetaloreak.com